

# EHUN-OSAGARRIAK (EKITALDIETARAKO EDO MERCHANDISINGERAKO) – INGURUMEN-IRIZPIDE SINPLIFIKATUAK

## Prozedura ireki bidez kontratatzeko eta lehiaketa bidez esleitzeko ingurumen-irizpideak

| Oinarrizko maila | Maila aurreratua |
|---|---|
| **KONTRATUAREN XEDEA:** | **KONTRATUAREN XEDEA:** |
| Kontratu honen helburua da [zehaztu elastiko, zapi, poltsa, eta abarren artean] arropa lortzea, ingurumen-kalitateari dagozkion gutxieneko irizpide batzuekin. | Kontratu honen helburua da [zehaztu elastiko, zapi, poltsa, eta abarren artean] arropa lortzea, ingurumen-kalitateari dagozkion gutxieneko irizpide batzuekin. |
| **ESPEZIFIKAZIO TEKNIKOAK (nahitaez betetzekoak):** | **ESPEZIFIKAZIO TEKNIKOAK (nahitaez betetzekoak):** |
| 1. Eskuratutako produktuek Europako Parlamentuak bidezko merkataritzari eta garapenari buruz onartutako ebazpeneko parametroak betez ekoitziak izan beharko dute (A6-0207/2006).<br>***Egiaztapena:*** *Proposamenean barne hartutako produktu bakoitzeko, berme hau aurkeztu beharko da: 1.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).* | 1. Eskuratutako produktuek Europako Parlamentuak bidezko merkataritzari eta garapenari buruz onartutako ebazpeneko parametroak betez ekoitziak izan beharko dute (A6-0207/2006).<br>***Egiaztapena:*** *Proposamenean barne hartutako produktu bakoitzeko, berme hau aurkeztu beharko da: 1.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).*<br>2. Era berean, produktuek gutxienez honakoen % 90 izan behar dute:<br>a. Nekazaritza ekologikotik eratorritako zuntz naturalak, Europar Batasunean finkatutako estandarren arabera [834/2007 (EE) Araudia], Estatu Batuetakoaren arabera [Nekazaritza Saileko |

| | |
|---|---|
| | (USDA) National Organic Programen (NOP) arabera) edota IFOAM erakundeak edo baliokideek nazioartean ezarritako estandarren arabera; eta/edo<br>b. Zuntz birziklatuak, ekoizpen hondakinetatik, ehungintza eta jantzigintza industriaren ebakinetatik edo kontsumo ondorengo hondakinetatik eratorritakoak.<br><br>***<u>Egiaztapena:</u>*** *Proposamenean barne hartutako produktu bakoitzeko, berme hauetakoren bat aurkeztu beharko da:*<br>- *Zuntz ekologikorako:* 2.a, 3.a (Beltxarga Zuria bakarrik) + 4.a, 5.a<br>- *Birziklatutako zuntzarentzako: 4.a, 5.a* |
| **ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK:** | **ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK:** |
| **Produktuen ingurumen-kalitatea, genienez 20 puntu**<br><br>2. Produktu bakoitzean, honakoetatik zein portzentaje duen baloratuko da:<br>a. Nekazaritza ekologikotik eratorritako zuntz naturalak, Europar Batasunean finkatutako estandarren arabera [834/2007 (EE) Araudia], Estatu Batuetakoaren arabera [Nekazaritza Saileko (USDA) National Organic Programen (NOP) arabera) edota IFOAM erakundeak edo baliokideek nazioartean ezarritako estandarren arabera eta/edo<br>b. Zuntz birziklatuak, ekoizpen hondakinetatik, ehungintza eta jantzigintza industriaren ebakinetatik edo kontsumo ondorengo hondakinetatik eratorritakoak<br><br>***<u>Egiaztapena</u>***: *Proposamenean barne hartutako produktu bakoitzeko, berme hauetakoren bat aurkeztu beharko da:* (ikusi egiaztapen-dokumentuak)*:*<br>- *Zuntz ekologikorako:* 2.a, 3.a (Beltxarga Zuria bakarrik) + 4.a, | **Produktuen ingurumen-kalitatea, genienez 20 puntu**<br><br>1. Baloratuko da produktuek, amaieran zein ekoizpenean, Oekotex, Europako Etiketa Ekologiko, Beltxarga Zuri, Made in Green edo antzeko estandarretan substantzia kimikoei buruz ezarritako irizpideak betetzea.<br><br>***<u>Egiaztapena</u>***: *Proposamenean barne hartutako produktu bakoitzeko, berme hau aurkeztu beharko da: 3.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).* |

| | |
|---|---|
| 5.a<br>*- Birziklatutako zuntzarentzako: 4.a, 5.a* | |

| **EGIAZTAPEN-DOKUMENTUAK (*):** | |
|---|---|
| *1. Bidezko merkataritzako etiketa* … | *4. Fitxa teknikoa (ingurumenaren aldetik onenak diren zuntzen % jaso beharko du)* |
| *2. Nekazaritza ekologikoko etiketa* … | *5. Deskribapena eta/edo adierazpena (ingurumenaren aldetik onenak diren zuntzen % jaso beharko du)* |
| *3. Etiketa ekologikoa* … | |

| **OHARRAK:** |
|---|
| *Dokumentu honetan garatutako irizpideez gain, artikuluak enbalatzearekin zerikusia duten betebeharrak ere adieraztea interesgarria izan daiteke.*<br>*Informazio gehiago nahi izanez gero, [www.ihobe.eus](www.ihobe.eus) **webguneko Erosketa Publiko Berdearen atala** kontsulta dezakezu edo Ihoberekin harremanetan jar zaitezke, bide hauetatik:*<br>• *Tel.: 94 423 07 43*<br>• *Helbide elektronikoa: compra.publica@ihobe.eus* |